Ezin duzue igogailua erabili

A1e25

Irakaslearena

Audioaren erreferentzia: Bagoaz A1 E25
Maila: A1
Helburua: Toki batean egin daitekeena eta egin ezin dena ulertu eta adieraztea.
Funtzioa: Informazioa emateko asmoz, toki publikoetan debekatua dagoena eta ez dagoena ulertu eta solaskideari adierazteko gai izatea.
Azken ekintza: Bertan zer egin daitekeen eta zer ez adierazita, zein tokiaz ari den asmatzea. Denen artean debeku gehien non dauden erabakitzea.
Adierazpide linguistikoak:

- Gramatika: Posible da .. -T(z)EA / Ezin da (duzu/zara) + ADITZA
- Zenbait esapide: *Sekulako pisua da. Lehertuta nago.*
- Hiztegia: hiria-herriari loturiko hiztegi orokorra.

  Aditzak: oinez joan, sartu, isilik egon, erabili, ozen hitz egin…

1. ENTZUN AURRETIK

1.1 Hemen debekatua dago.

Hasierako ataza honek egunerokoak diren zenbait tokitan (jatetxea, ospitalea, jatetxea…) egin ezin denaz hitz egin eta horiek adierazteko ditugun hizkuntza-formez jabetzea du helburu. Horretarako, ikasle bakoitzak taula osatutakoan, binaka jardungo dute egoera bakoitzean zer eramaten duten eta zer ez kontatzeko. Eta amaieran, binaka, toki horiei lotuta, zein beste debeku ezagutzen dituzten idatziko dute. Azkenean denen artean debekuen zerrenda bat osatuko dute.
Era horretan, azken atazan praktikan jarriko dituzten esaldi-moldeez jabetzen hasiko dira.
Hemen ariketaren erantzunak

Debekatua dago	NON	Hau ere debekatua dago
☐ 2 Lurra bustita dago. Ezin zara sartu.	1. Futbol-zelaian	
☐ 3 Ezin da txakurrik sartu	2. Igogailuan	
☐ 4 Zortzietatik aurrera ezin da inor bisitatu	3. Liburutegian	

1. Debekatua dago alkohola sartzea	4. Ospitalean	

2. ENTZUN BITARTEAN

1.1 Uf, hau pisua!

Atal honetan, audioko mezu orokorrari erreparatzeko galdera baten erantzun zuzena aukeratzeko eskatuko diogu ikasleari. Horretarako, audioaren lehen zatia entzungo dute. Hemen erantzun zuzena:

Entzun audioaren lehen zatia. Zein da bertan ageri den egoera?

- *Josu eta Amaia erosketak egin dituzte. Josuk ekarri ditu, beti bezala.*
- *Etxea oso fresko dago, eta hoztuta etorri dira.*
- *Josuk pisu handia ekarri du eta Amaiarekin haserretu da.*

Ondoren, ulermen xeheari erreparatuz, beste zenbait galdera zehatzagoren erantzun zuzena aukeratuko dute. Oraingoan audio osoa entzungo dute, eta beharko balitz bi aldiz entzun ere.

Hona erantzun zuzenak:

Josuk igogailuan sartu nahi du. Zer esan dio garbitzaileak? * Sartzeko lasai ** Oinez joateko* * Sartzeko poliki-poliki	Zergatik ezin dira sartu igogailuan? ** Garbitzailea lurra garbitzen ari da* * Igogailua izorratuta dago * Amairi ez zaio gustatzen	Zer gertatu da azkenean? ** Oinez igo dira etxeraino* * Itxoin egin dute * Garbitzailearekin haserre jarri dira.

2. 2. Adarra jotzen, ala?

Oraingoan elkarrizketan erabilitako zenbait esapideri erreparatuko diote, eta horretarako, nork esan dituen identifikatuko beharko dute. Azkenean, audioa berriro entzunarazi, eta erabilitako doinuari erreparatzeko eskatuko diegu. Horren arabera, idatzi ditzatela haserrea adierazten duten esapideak.
Hemen erantzun zuzenak:

Sar gaitezke igogailura? JOSUK Zoazte oinez bai? GARBITZAILEAK Seigarren solairuan bizi gara AMAIAK Adarra jotzen ari zara, ezta? AMAIAK	Edo zoazte kafe bat hartzera GARBITZAILEAK Ez, eta kito! GARBITZAILEAK Hartu beste poltsak eta goazen! AMAIAK

3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Leher eginda nago!

Atal honek bi aldi izango ditu. Lehenengoko ariketak audioan agertu diren bi esapideren esanahia testuingurutik inferitzea du helburu. Horretarako, esapide horiek agertzen diren audioaren transkripzioa jarriko diegu arbelean, eta ondoren, honako bi galdera hauei erantzuteko eskatu. Hemen erantzun zuzenak.

Sekulako pisua du. Zer esan nahi du? ☐ Pisu hori sekula ez dut ikusi. ☐ Pisu oso handia du. ☐ Ez du pisurik.	*Lehertuta iritsi naiz*. Zer esan nahi du "lehertuta" hitzak? ☐ Ia lehertu egin dela. ☐ Nazkatuta iritsi dela. ☐ Neka-neka eginda iritsi dela.

Behin esanahiaz jabetuta, bigarren ariketan, esapide horien bi elkarrizketa-zati emanda behar duten tokian kokatuko dituzte. Bide batez, galdetu ea esapide horien baliokiderik ezagutzen duten, eta idatzi arbelean. Hemen erantzun zuzenak:

EGOERAK	Osatu elkarrizketak
○ Hau da jende pila! ● Bai, eta gainera, sekulako giroa dago. ○ Dena ondo antolatua dago, eta eguraldi bikaina! ● Bai, Ane, sekulako lana egin duzue, benetan! ○ Bai, ezta? Saiatu gara behintzat.	○ Non dago Jon? Ez dago bere gelan. ● Zer? Posible ote da? ○ Aurkitu dut, bere bulegoan dago, lo gelditu da. ● Lotan? Gizajoa, lehertuta (leher eginda) egongo da! Egun osoan lanean pasatu du.

3.2 Zer da posible egitea?

Azken atazan, aurrekoan landu dituzten egiturak praktikan jarriko dituzte, baina oraingoan modu askeagoan. Zenbait toki publiko adibide modura jarrita, binaka horiei buruzko pistak asmatzeko eskatuko diegu. Pista modura, toki horietan egin daitekeena eta egin ezin dena adieraziko dute, besteek zein tokiaz ari diren asmatu arte. Adibide bat emango diegu, zein motatako egiturak erabili behar dituzten jakiteko. Azkenean, denen artean, debeku gehien zein tokitan dauden erabakiko dute.

MATERIAL OSAGARRIA

Sekuentzia honetan lantzen diren edukiak edota antzeko gaiak lantzeko honako material osagarria erabil dezakezu:

- **Asteburuan, zer? (A1b14)** BAGOAZ. Zenbait ariketatan *ezin dut*, *ezin naiz*, eta *ahal* aditz partikulak birpasatu eta praktikan jartzeko atazak proposatzen dira.

AUDIOAREN TRANSKRIPZIOA

JOSU.— Eskerrak, iritsi gara. Mm, fresko dago etxeko ataria, Amaia!
AMAIA.— Bai, pisu handia ekarri duzu, Josu.
JOSU.— Bai, bai, zure morroia naiz, andereño. Zuk denetatik erosi eta nik ekarri. A zer akordio txarra!

ETENA

AMAIA.— Arratsalde on!
GARBITZAILEA.— Arratsalde on, bai.
JOSU.— Sar gaitezke igogailura?
GARBITZAILEA.— Ba garbitzen ari naiz. Erratza pasatu dut eta ondoren lixibaz garbitu. Zoazte oinez, bai?
JOSU.— Oinez? ez al dituzu ikusten poltsa hauek denak? Sekulako pisua da.
AMAIA.— Bai, eta seigarren solairuan bizi gara!
GARBITZAILEA.— Ba, orduan, itxaron pixka bat lehortu arte, mesedez.
JOSU.— Hemen?
GARBITZAILEA.— Edo zoazte kafe bat hartzera eta bueltan lehor-lehorra egongo da.
AMAIA.— Adarra jotzen ari zara, ezta?
GARBITZAILEA.— Ez. Ez dut berriro entzun nahi komunitateko lehendakariaren kexurik: igogailua zikin-zikina dago, ispilua atzamarrez beteta dago... Ez duzu ondo garbitzen!
AMAIA.— Baina guk ez dugu zikinduko, poltsak gora igo eta...
GARBITZAILEA.— Ez, eta kito! Astelehenera arte ez dut berriro garbituko eta asteburuan txukun egotea nahi dut.
AMAIA.— Orduan, oinez igo beharko dugu.
JOSU.— Edo “kafea hartzera joan...”
GARBITZAILEA.— Eta gainera, zuek ez zarete etxearen jabeak. Zuek alokairuan bizi zarete.
JOSU.— Bai, baina eskubide batzuk izango ditugu, ezta?
GARBITZAILEA.— Bueno, bueno, zuekin denbora galtzen ari naiz eta gauza asko ditut egiteko. Bi aukera dituzue: eskailerak edo kafea, baina utzi bakean, lana amaitu behar dut eta.

ETENA

JOSU.— Posible ote da?
AMAIA.— Lasai, Josu, oinez igoko gara, ahaztu kontu hau.
JOSU.— Baina… pisu handia da, Amaia! Lehertuta iritsi naiz.
AMAIA.— Tira, lagunduko dizut. Gizajoa. Sei solairu ez dira hainbeste. Hartu beste poltsak eta goazen.
JOSU.— Pazientzia! Ile bat ikusten badut, entzun beharko dit garbitzaile zakar horrek